

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

**EDUCACION**

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Irailaren 11n amaitzen da langabeentzako euskara-ikastaroetan izena emateko epea

*Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bidez, antolatzen ditu eta matrikula doan da*

Jueves, 04 de septiembre de 2014

Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bidez, Langabeentzako euskara-ikastaroen eskaintzaren berri eman du. 2014/15 ikasturtean zehar hiru prestakuntza-aldi izango dira. Lehen aldi horretarako izena emateko epea irailaren 11n amaituko da, eta matrikula doan izango da. Gainerako aldietarako izena emateko datak geroago argitaratuko dira.

Lehen aldi honetan eskainitako ikastaroak estentsiboak izango dira. A1.1 mailan, ikastaroa irailaren 15etik abenduaren 19ra izango da, asteleheneetik ostegunera, bi ordutegirekin: 09:30etik 11:30era, eta 17:00 etatik 19:00etara. A1 mailan, ikastaroa irailaren 15ean hasi eta ekainaren 3an amaituko da, 09:00etatik 12:00etara, astearte eta ostegunetan.

Ikastaro horietan parte hartzeko baldintza izena emateko datan langabezia-txartela eguneratuta aurkeztea da. Matrikulak Euskarabideko egoitzetan egin daitezke: Bartolomé de Carranza kalea, 5, Iruña, 09:00 etatik 11:00etara, eta Biurdana kalea, 1, 1. solairua, Iruña, 08:00etatik 14:00etara. Posta elektronikoz ere egin daiteke.

Informazio gehiagorako, [www.euskarabidea.es](http://www.euskarabidea.es) webgunean sartu edo [euskarabidea@euskarabidea.es](mailto:euskarabidea@euskarabidea.es), helbide elektronikora idatzi daiteke, eta baita ondorengo telefono-zenbakira deitu ere:848426054.